

GAKO EKONOMIKOAK

- Mundu-mailako ekonomia gehienak berrirekitzek eta Sendagaien Europako Agentziak oniritzia ematen dio koronabirusaren aurkako lehen farmakoari. Baina koronabirusaren kasu berrien gorakadak birusaren bigarren bolada baten beldurra pizten du eta azkar suspertzeko itxaropenak hozten ditu.
- Hirugarren hilez igo dira errenta aldakorreko merkatuak.
- Tasen beherakada bonu alemanean eta amerikarrea, eta herrialde periferikoen arrisku primaren eta enpresa bonuen diferentzialen hobekuntza.
- Prezioaren balioa handiagotzea eta petrolio %10 igozea.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Pandemiaren bilakaeran egon diren hobekuntzei esker, mundu-mailako ekonomiaren gehiengoa berrireki ahal izan da, eta horrekin batera, baita "V" itxurako susperraldi ekonomikoa izateko itxaropena ere. Hala ere, koronabirusaren kasu berrien gorakadak birusaren bigarren bolada baten beldurra piztu du eta azkar berreskuratzeko itxaropenak hoztu ditu. Inbertitzaileak arduratzen hasi dira infekzioen berpiztearen aurrean, ekonomien susperraldiaren erritmoa geldiarazi dezakete eta. AEBetan, jaitsiera-aste batzuen ondoren, hainbat estatutan agertutako kasu berriak direla eta, barne-mugimendua murrizteko neurriak berrezarri behar izan dituzte. Afrikako kasuen azelerazio-erritmo handia ere aipagarria da. Europan, Sendagaien Europako Agentziak koronabirusaren aurkako lehen farmakoari oniritzia eman diola jakin dugun arren, kasuek gora egiten jarraitzen dute eta begirada Europa iparraldean jarrita dago. Latinoamerikan, infekzioen tasen azelerazioak bere horretan jarraitzen du eta egoera okerrena jasaten ari den herrialdea Brasil da. Ingurune honetan, aurreratutako adierazle batzuek edo AEBtako enpleguaren eboluzioari buruzko datuek gora egin duten arren pandemia hasi zenetik, 2020. urtea historikoki negatiboa izango dela baieztatzen ari da. NDFren azken aurreikuspenek BPGren jaitsierak iragarri dituzte, eta ekitaldi osoan digitu bikoitzaren inguruan ibiliko da Europan, edo % 5 inguru mundu-mailan. Birusaren ondorioak arintzeko helburuarekin, Banku Zentralen eta Gobernuen baldintzarik gabeko laguntza izaten jarraituko dute. EBZk, ekaineko bileran, martxoaren 18an sortutako pizgarrien plana 600.000 milioi handiagotzea erabaki du, 750.000 milioi euroko zenbatekoarekin, koronabirusaren krisiari aurre egiteko. Gainera, aipatu planaren iraunaldia luzatu du, gutxienez 2021eko ekainera arte. Erreserba Federalak, bere bilera jakinarazi zuen, tasak ez direla mugituko 2023ra arte gutxienez. Bestalde, Ingalaterrako Banku Zentralak zorra erosteko bere programari 100.000 milioi libera gehitu dizkio, eta Japonian, Japoniako Bankuak enpresetarako maileguzko areagotze bat jakinarazi du. Pizgarriei dagokionez, badirudi Trumpen Administrazioa bilioi 1 dolarreko azpiegituren plan bat lantzen ari dela, ekonomiaren susperraldiari eusteko. Alemaniako gobernuak 130.000 milioi euroko bigarren pakete fiskala eta ekonomiaren susperraldirako funtsa onartu ditu, elkartasun franko alemaniarrek eta Europako Batzordeak babestua, zerga-politika komun baterako lehen urrats gisa; oraindik eztabaida gogorak sortzen dituen arren, babes erabakigarriak izaten hasi da. Beste alde batetik, esparru geopolitikoari dagokionez, beste hilabete bat igaro da Brexit-aren negoziazio-mahaian eta AEB eta Txinaren arteko tentsioetan aurrerapenik egin gabe; potentzia biak etsaitasuna handiagotzen duten erabakiak hartzen ari dira.

ERRENTA ALDAKORRA

Koronabirus kasuak berragertzen ari diren arren, ekainean burtsek bulkada bat izan dute Banku Zentralen eta gobernuen baldintzarik gabeko babesari esker, Europa zerga-batasun baterantz joateari esker, datu makroekonomiko batzuen hobekuntzari esker eta birusaren auskako lehen farmakoaren oniritziari esker. Hilabetea aurrerapen handiekin hasi zen, batez ere Europan, EBZren aldetik izandako likidezia mordera, gobernuak ekonomiei emandako babesari eta hobekuntza-zantzuak ematen zituzten makro-datuak zirela eta. Hala ere, hilabetea igaro ahala koronabirusaren kasuek gora egiteak -kutsadura gehien dituen herrialdea AEB izanik-, birusaren bigarren bolada bat egoteko beldurra piztu du eta lehenengo asteko igoerak baretu ditu. Hala eta guztiz ere, Amerikako indize nagusiak, S&P 500, % 1,84ko igoera izan du eta Nasdaq selektibo teknologikoak gora egiten jarraitu du, % +16,30eko urteko errentagarritasun bat metatuz. Europako burtsek indar handia izan dute hilabete honetan, kutsatze-kopuru txikiaren aurrean, Eurostoxx 50-ek % +6,03ko igoera izan du, baina Espainiako burtsa atzean geratu da (% +1,90). Europatik kanpo, Japoniako burtsak igoera txiki batekin (%1,88) amaitu du hilabetea, eta sortu berriek, guztira igoera handiena izan dute (% +6,96).

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	7.231,40	EUR	%1,90	%-24,27
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.234,07	EUR	%6,03	%-13,65
S&P-500	AEB	3.100,29	USD	%1,84	%-4,04
DOW JONES	AEB	25.812,88	USD	%1,69	%-9,55
NASDAQ 100	AEB	10.156,85	USD	%6,29	%16,30
NIKKEI-225	JAPONIA	22.288,14	JPY	%1,88	%-5,78
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	995,10	USD	%6,96	%-10,73
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	200,18	EUR	%1,52	%-6,70

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Testuinguru honetan, ekaina tasen jaitsierarekin itxi da Atlantikoaren bi aldeetan. EBZren Pandemiaren Larrialdiaren erosteta-programa (PEPP) berria handiagotzeko eta FED-ek egindako erostetek jaitsiera berriak eragin dituzte Europako eta Amerikako zorren errentagarritasunean. Europako periferikoek Europa berrezartzeko funtsaren sorrerari onura ateratzen jarraitzen dute eta Alemaniarekiko diferentzialak hobetu dituzte. Espainian, arrisku-prima oinarritzko 92 puntuen inguruan itxi da. Ildo berean, enpresa bonuek euren diferentzialak lasaitzen zirela ikusi zuten.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,41	-0,11	-0,03
	6 HIL.	-0,29	-0,13	0,04
	12 HIL.	-0,21	-0,12	0,04
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,69	-2,80	-8,60
	5 URTE	-0,70	-5,30	-22,40
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	10 URTE	-0,45	-0,70	-26,90
	2 URTE	-0,41	-6,80	-2,50
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	5 URTE	-0,14	-6,90	-6,20
	10 URTE	0,47	-9,50	-0,10

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Europako dibisak bere indarrari eutsi dio, zergen arloan kohesio handiagoa lortzeko Europa egiten ari den bidean. Hortaz, hilean zehar, % 1,28 sendotu da dolarrearekiko. Era beran, Europako monetak balioa handiagotu du liberaren aldean, Erresuma Batuak Brexit-aren negoziazioan aurrera egiteko dituen zailtasunak direla eta. Bestalde, petrolio % 11,63 igo da, ekoizle nagusiek ekoizpen-kostuak gaintzeko itxaropenak babestuta.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg